

EUSKADI TURISMO BONUA

"Euskadiko turismo, sukaldaritza eta ostalaritza establezimenduetan **kontsumoa piztea da helburu** "Euskadi Turismo Bonuak", sektoreko langile autonomoak, mikroenpresak eta ETEak indartzen, haien jarduera dinamizatzen eta tokiko nahiz eskualdeko eremuan duten eragina sustatzen laguntzeari begira."

ZERTAN DATZA

Ostalaritzarako bi bonu mota daude:

Ostalaritzako Bonua. Eustaten estatistika-taulen sailkapenean "563. Edari-establezimendu" gisa kalifikatutako establezimenduak, turismoaren adar bereizgarrienei dagozkienak.

Jatetxe-bonua. Eustaten estatistika-taulen sailkapenean "561 jatetxe eta janari-postu" gisa kalifikatutako establezimenduak, turismoaren adar bereizgarrienei dagozkienak.

5 euroko edo 10 euroko deskontuak egingo dira, 20 edo 40 euroko gutxienerako erosketetarako, hurrenez hurren, ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta enpresetan.

Pertsona bakoitzak gehienez 40 euroko deskontu-bonuak erabili ahal izango ditu. Eta faktura eta establezimendu bakoitzeko, bi deskontu-bonu baino ezin dira aplikatu.

EMPRESAK APUNTATZEKO EPEA

Atxikitze epea azaroaren 30era arte luzatuko da, eta bonuen trukea 2021eko maiatzaren 31ra arte.

ABANTAILAK

- **Bezero berriak lortu:** bezero berriak fidelizatzeko modua da. Askok zein enpresek eskaintzen dituzten deskontuak begiratuko dute, hara joateko ondoren.
- **Betiko bezeroei esker ona:** Betiko bezero batek enpresaren aldetik "saria" jaso dezake establezimendu horretara joateagatik. Fidelitasuna saritzeko modu bat da. Bezeroei zuzendutako deskontua da, beraiek etekina atera dezaten. Gogoratu, haiek ere zu laguntzen zaituztela eta zuen establezimendura itzuliko direla egoera hobetzen denean.
- Kontrako egoera honen aurrean **proaktibo agertzea:** asko egin ezin bada ere, goazen ahal dugun gutxi hori egitera
- **Merkataritzarako Bonuen esperientzia positiboa:** Merkatariaik oso pozik daude jasotako harrerarekin. Atxikitako dendetako edozeinekin hitz egin dezakezue. Denda batzuk geroago atxiki nahi izan dira eta ezin izan dute ezer egin.
- **Kontsumoaren kantitatea handitu:** Lehen bokata bat erosten zutenak, orain bonoarekin, bokataz gain beste edozer gauza erosiko dute prezio baxugoan. Bonoak motibatu lezake bezeroa beste edozer gauza eroatera.
- Bono hauek aitzakiatzat hartuz, saiatu tabernako bertakoen **sare sozialetako ikusgarritasuna areagotzen**, izan ere, bono hauetan parte hartzen dutela esatea, post erakargarri bat izan liteke beste establezimenduentzat.
- Urola Garaia Turismotik atxikitutako establezimenduen **promozioa egiteko konpromisoa** hartzen dugu: sare sozialetan eta prentsan, besteak beste. Bestetik, prozesuan laguntzeko ere prest agertzen gara.

DESABANTAILAK

- Bonu bakoitza plataformara sartzen behar den denbora: lan-kantitatearen arabera, zaila izan daiteke lan honetan aritzea.

NOLA EMAN DEZAKET IZENA empresa bezala?

1. Sartu web orrialdean: <https://www.euskaditurismobono.eus/es>
2. Klikatu "Gipuzkoa"
3. Klikatu "Establezimenduak alta eman"
4. Oso erraza da atxikitzea, eskatutakoa bete: zuen **datu orokorrak, establezimenduaren argazki bat eta EJZren dokumentua** bakarrik bete beharko zenituzkete. Azken hau arazorik gabe zuen aholkularitzek emango dizuete

RAZÓN SOCIAL DEL ESTABLECIMIENTO *	NOMBRE COMERCIAL *	BREVE DESCRIPCIÓN DEL ESTABLECIMIENTO *
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
NIF/CIF *	DIRECCIÓN DEL ESTABLECIMIENTO *	CÓDIGO POSTAL DEL ESTABLECIMIENTO *
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
MUNICIPIO DEL ESTABLECIMIENTO *	PERSONA DE CONTACTO *	CARGO *
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-MAIL DEL ESTABLECIMIENTO *	REPETIR E-MAIL *	TELÉFONO DEL ESTABLECIMIENTO *
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
PÁGINA WEB DEL ESTABLECIMIENTO	CUENTA CORRIENTE - IBAN *	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
IAE (ELEGIR UNA O VARIAS OPCIONES) *		
<input type="text" value="Establecimientos de restauración y de hostelería"/>		
SECTOR DE ACTIVIDAD (ELEGIR UNA O VARIAS OPCIONES) *		
<input type="text" value="Hostelería"/> <input type="text" value="Restauración"/>		
TIPOS DE BONOS (ELEGIR UNA O VARIAS OPCIONES) *		
<input type="text" value="Bono hostelería"/> <input type="text" value="Bono restauración"/>		

5. Behin dena beteta, azken botoia sakatu eta listo!